

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Luisa Ruiz Arana

*Eibar,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Maria Luisa Ruiz Arana Donostian jaio zen 1934an. Hemeretzi urterekin Eibarrera bizitzera joan zen eta Mercedes Kareagaren bitartez lagunak eta kuadrila egin zituen herrian. Lantegi batean lan egiten zuen bitartean, akademiara joan zen bulego-lanak ikastera eta, horiek bukatzean, Eibarko Caritaseko arduradun izendatu zuten. ETako laguntzailea izan zen eta Parisen exiliatu zen 1968tik 1976ra. Bertan, mugimendu komunistaren militante bihurtu zen eta Eibarrera bueltatu zenean, EMK-rekin (Euskadiko Mugimendu Komunista) jarraitu zuen. *Egoibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.*

Zintak

EIB-720

- **Proiektua:** 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-10-20
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Eibarrera nola iritsi zen

- **Erref:** EIB-720/002
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere borondatez, familia utzi zuen eta Aldundiaren bitartez Azpeitiko familia batekin bizi behar izan zuen 25 urte bete arte. 19 urte zituela familia hori Eibarrera joan zen bizitzera eta Maria Luisa haiekin batera.

2. Mercedes Kareagaren bidez kuadrila aurkitu zuen; Eibar, liberala

- **Erref:** EIB-720/003
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Eibarrera heldu zenean gozotegi batean lanean hasi zen. Mercedes Kareaga, Carmen Apellaniz eta beste batzuen bitartez, Maria Luisak lagunak egin zituen Eibarren. Donostia, Azpeitia eta Eibarren arteko ezberdintasunak. Eibar oso liberala zen, oso gustura zegoen.

3. Eibarko Caritas-eko arduraduna 22 urterekin

- **Erref:** EIB-720/004
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:07:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Gozotegian lan egitetik, Jardinetan zegoen Alka lantegira pasatu zen. Akademian ere bazebilen ikasten eta, hura bukatzean, Pedro Zelaiaren bitartez, Caritaseko bulegoko ardura hartu zuen. Oso lan erakargarria zen.</p>

4. Caritas-eko funtzionamendua

- **Erref:** EIB-720/005
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:07:59. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Caritas-en nola lan egiten zuen kontatzen du: pertsonekin hitz egin, fitxa egin, batzarrean kasua azaldu... Lana asko gustatzen zitzaion baina gerora konturatu da oso gaztea zela bere gain zuen ardura horretarako.</p>

5. Pilatuta bizi ziren familia asko Eibarren

- **Erref:** EIB-720/006
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

Jende asko heltzen zen Eibarrera bizitzera eta askotan familia asko pilatuta. Caritas-etik laguntza ematen zitzaien familia hauei.

6. Accion Católica-ko zentroa Txirio Kalen

- **Erref:** EIB-720/007
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Garai batean oso erlijiosoa zen Maria Luisa. "Acción Católica"-ko lehendakaria izan zen. Eibarren, Mercedes Kareagak sortutako Goi Argi emakumeen elkarte zegoen baina ez zegoen elizarekin lotuta eta "Acción Catolica"-tik bat zabaldu zen, Txirio Kaleko lehenengo zenbakian. Neskek ordaintzen zuten kuotekin ordaindu zen. Maria Luisa bertan bizi zen eta liburutegiaren ardura ere bazuen.</p>

7. Acción Católica-ko liburutegia

- **Erref:** EIB-720/009
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:16:14. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Maria Luisa "Acción Católica"-ko zentroan bizi zen eta bertan zegoen liburutegiaren ardura zuen. Eibarko orduan ez zegoen beste liburutegirik.</p>

8. Eibarren lan egitea, Ameriketara joatea bezala

- **Erref:** EIB-720/010
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Elizan hilean behin Caritas-erako biltzen zen dirua ez zen nahikoa zeuden beharrak asetzeko. Boom industrialaren garaian, Eibarrek jende gehiago nola jasotzen zuen. Eibarrera lanera joatean, Ameriketara joatea bezala zen.

9. Caritas-en boluntario asko

- **Erref:** EIB-720/011
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:24:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Caritas-eko boluntarioek laguntza ezberdina ematen zuten: diru-eskaerak egiten ziren urtean behin, Ameriketatik zetorren laguntza (esne-hautsa eta gazta) banatzen zuten eta Caritas-eko arropategia kudeatzen zuten, besteak beste.

10. Herritarren laguntzarekin, Caritas ekonomikoki ondo zegoen

- **Erref:** EIB-720/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:25. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Caritas-eko lana ondo ikusia zegoen Eibarren eta eliztarrak ez zirenek ere laguntzen zuten, justizia sozialtzat bezala ikusten zelako. Aberatsek ere ematen zuten dirua.

11. Eibarko Caritas ezberdina zen

- **Erref:** EIB-720/013
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:29:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Caritas elizakoa zen eta estatu osoan zegoen, herri handi eta hiri guztietan. Arau eta baldintza batzuk zeuden nori lagundu eta zertarako lagundu zehazteko baina Eibarren ez ziren betetzen eta errepublika aske bat zelan zioten. Maria Luisak ez zuen jendea kontrolatu nahi.</p>

12. Tratu txarrak jasaten zituzten emakumeak laguntza eske

- **Erref:** EIB-720/014
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:29:48. **Bukatu:** 00:32:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Tratu txarrak jasaten zituzten emakumeak ere hurbiltzen ziren Caritas-era. Kasu bat kontaktzen du, non emakumeak senarraz banatu nahi zuen eta azkenean atzera bota zen. Kasu asko zeuden baina ez ziren kontaktzen.

13. Eibarko Caritas-eko kasu ezberdinak

- **Erref:** EIB-720/015
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:32:42. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarreak

Laburpena:

<p>Caritas-en eraman zuen kasu bat gogoratzen du. Eibarrera, bikote bat heldu zen, non bakoitzak aurreko ezkontzan izandako haurrak zituen. Haiek erregistratzeko egin behar izan zutena kotatzen du. Eibarren, kasuistika ezberdinak ematen ziren.</p>

14. Erlijositatetik militantzia politikora

- **Erref:** EIB-720/016
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:39:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Caritas-en lan eginda, krisi politiko-erlijioso bat izan zuen. ETA erakundetik laguntza eskatu zioten pertsona bat etxean gordetzeko.

15. ETAko kolaboratzailea izan da, ez kidea

- **Erref:** EIB-720/018
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:40:39. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

TEFISO taldean parte hartzen zuen Maria Luisak, Ion Etxabe, Felix Arroitauregi eta Mario Onaindiarekin batera. Marioren bitartez, etxean ETAko kide batzuk ezkutatzen hasi zen. Txabi Etxebarrietari buruz hitz egiten du. Burgosko prozesuan Maria Luisa sartu zuten eta ihes egin zuen.

16. Parisera ihesi, ETAkideak etxean gordetzeagatik

- **Erref:** EIB-720/019
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:47:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » Euskal gatazka](#)

Laburpena:

1968an, Burgosko prozesuan bere izena zegoenez, "opor" batzuk hartu eta ihes egin zuen. Bandres abokatuari galdetu zion bere kasuaz eta ETAkideak gordetzeak 32 urteko kartzela zigorra suposatzen zuela esan zionean, Parisera ihes egin zuen.

17. ETAn kolaboratzaile-lanak

- **Erref:** EIB-720/020
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:47:14. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » Euskal gatazka](#)

Laburpena:

ETAko kolaboratzaile izatera nola heldu zen azaltzen du. Orduan ETA ez zen talde armatu bat eta helburua jendea kulturalki formatzea zen, euskal problematika azaltzea... baina oso jazarriak zeuden. Armak zituzten baina bakoitzaren segurtasunerako, ez inor hiltzeko. Dokumentazioen faltsutzea. Maria Luisa ETAREN ideiekin ados zegoen eta horregatik laguntzen zuen.

18. ETAREN APURKETA: POLITIKOA, MILITARRA ETA POLITIKO-MILITARRA

- **Erref:** EIB-720/021
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:52:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » Euskal gatazka](#)

Laburpena:

<p>Meliton Manzanas-en hilketan izan zen ETAREN lehena eta horrek erakundearentzat apurketa bat suposatu zuen. Aurretik zetorren eztabaida, batzuk politikoagoak zirelako, beste batzuk militaragoak eta hirugarren batzuk politiko-militarrak.</p>

19. Meliton Manzanases hilketaren ondorioz, poliziatik ihesi

- **Erref:** EIB-720/022
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 00:52:02. **Bukatu:** 00:57:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » Euskal gatazka](#)

Laburpena:

Meliton Manzanases-en hilketan, Jon Etxabe Azitaineko abadearen autoa poliziaren eskuetan gelditu zen. Maria Luisa San Andres elizan ezkutatu zen eta gauean atera eta Jon Etxaberekin eta beste mutil batekin ihes egin zuen.

20. Ihes egin aurretik dena lotuta utzi zuen Caritas-en

- **Erref:** EIB-720/023
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:57:38. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

1968tik 1976ra erbesteratuta egon zen Parisen. Bazekien mementuren batean ihes egin beharko zuela eta Karmeldar elizan zegoen neskari (Arrate) eskaini zion lanpostua, bera noizbait faltako balitz. Dena lotuta utzi zuen.

21. Parisen, Euskadiko Mugimendu Komunistan militatzen

- **Erref:** EIB-720/024
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:02:32. **Bukatu:** 01:05:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1976an erbestetik bueltatu zenean, egoera politikoa guztiz aldatuta zegoen. Argi zeukan alderdi komunista batean militatuko zuela eta Euskadiko Mugimendu Komunistan (EMK) sartu zen. Parisen Eibarri buruzko berriak heltzen zitzaiozkion.

22. Franco hil aurretik, denak bere kontra; hil ostean, denak denen kontra

- **Erref:** EIB-720/026
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 01:06:58. **Bukatu:** 01:11:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1976an zegoen egoera politikoaz hitz egiten du. Giro txarra zegoen alderdi politiko ezberdinen artean eta denek nahi zituzten herritarrak bereganatu. Franco hil aurretik, denak zeuden bere kontra; hil ostean aldiz, denak denen kontra zeuden.

23. Accion Catolica-ko lehendakaria, ETAko kolaboratzaile, EMK-ko militante...

- **Erref:** EIB-720/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:11:24. **Bukatu:** 01:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Maria Luisa oso ezaguna zen Eibarren. Erbestetik bueltatu zenean, oso ondo hartua izan zen, nahiz eta salto handiak egin dituen: Acción Catolica, ETAko kolaboratzaile, mugimendu komunistan militante... Herrian EMK-ko kide bezala egin zuen lehen agerraldia kontatzen du.

24. Ezkertiarra izan da beti; justizia soziala

- **Erref:** EIB-720/030
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:15:35. **Bukatu:** 01:18:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian aita kartzelan zegoen eta ihesi zebiltzala ama hil zen. Aita anarkista zen. Nahiz eta ezkertiarra izan, Maria Luisa beti izan da ezkertiarra. Justizia sozialari buruz.

25. Ideologia ezkertiarra eta justizia soziala beti batera

- **Erref:** EIB-720/032
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:18:59. **Bukatu:** 01:19:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Pentsamoldea finkatzea zaila dela dio Maria Luisak, baina ideologia ezkertiarrek justizia sozialarekin sentsibilizazio berezi bat dagoela uste du

26. TEFISO

- **Erref:** EIB-720/033
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:19:51. **Bukatu:** 01:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

<p>TEFISO-ri ("Teología, Filosofía eta Sociología") buruz hitz egiten du: zertaz hitz egiten zuten. Non biltzen ziren. Eibarren elkarte eta mugimendu asko zeuden, jendea ez zegoelako konforme.</p>

27. Elizaren mantupean garatutako pentsamoldea

- **Erref:** EIB-720/034
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 01:21:31. **Bukatu:** 01:25:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Francoren heriotza Parisen ospatu zuten xanpainarekin. Franco garaian ez zegoen adierazpen askatasunik, klandestinitatean ibili behar ziren polizia beti atzetik... Garai batean mugimendu guztiak elizaren mantupetik atera ziren eta jendea bertan garatu zela uste du Maria Luisak. Handik ideologia eta pentsamolde oso ezberdinak sortu ziren. JOC-a ere abade batzuek sortu zuten

28. Eibarko ikastolako idazkari lanpostua lortzeko, ideologia politikoa izkutuan

- **Erref:** EIB-720/036
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 01:25:55. **Bukatu:** 01:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Erbestetik bueltan Eibarren hasten zegoen ikastolako idazkari bezala nola hasi zen lanean. Ikastolan lanean hasi zenean, batzordeko inork ez zekien EMK-ko militantea zela eta jakin zenean, batzordekide batek esan zion lehenago jakin izan balu ez zela sartu izango idazkari bezala lan egitera.

29. Iturburu ikastetxearen kokapenak eztabaida handiak sortu zituen

- **Erref:** EIB-720/037
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:30:23. **Bukatu:** 01:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Erbestetik bueltatu zenean, Iturburu ikastetxea eraikitzen ari ziren. Ikastola barruan eztabaida zegoen, eraikina herritik urruti egoteagatik.</p>

Transkripzioa

- Ikastolaren, ikastolaren bizitzan, bere historia horretan, ze zati tokau jatzu bizi izatea zeuri? Ze urtetan hasten zara biharrian?
- Ba etorri eta hiru hillebetera, osake...
- Eta ikastolia...?
- Ikastolan momentu hartan zegoen, alde batetik, Juan Antonio Mogel Ikastola bakarrik. Juan Antonio Mogel. Eta Iturburu konstrukziñuan.

- Eitten, ezta?
- Eitten. Eta zegon... zeuren bi junta: bata, Iturburuko junta, obra aurrera eramateko ta hori dana.
- Hango finantziaziñua eta...
- Hori da, hori da, haura aurrera atatzie. Eta beste bat ikastola ikastola. Eta, klaro, ni sartu nitzen oso mundu polittian: ikastolako mundua. Kontsuziñoako lanak eta holako brrr... neretzako oso urruti gelditzen ziren. Eta, gaiñera, ikastola barruan, bazeon diskusiñoa: zergaitik ein hain urruti etxia, Iturburu zergaitik... eta ez herrian bertan. Eta klaro...
- Espazio kontua, ez?
- Erantzuna erreza zan: ekonomia zan.
- A bai?
- Terrenuak han merkio, han merkio. Eta kalkuluak einda... Baiña hor ere bazegon e...
- Bai, konfrontaziño bat...
- Konfrontaziño bat.
- Pentsatzeko modu desberdiñak.
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bazeon. Ni neu ez nitzan sartu hor, zeatikan ia ordurako edifizioa bazijoan aurrera, bazijoan aurrera, einda zegon, hori einda zegon. Baiña konseillu errektora barruan, bazegon jendia minduta, enkontronazo haundixak egon zirelako. Eta portunau zan konseillu errektorako jendia danak zirela nere ezaunak, danak mendiko lagunak eta danak lehengo lagun zaharrak, Klub Deportiboko lagunak.

30. Ostiraletan jai, bikotea bisitatzeko

- **Erref:** EIB-720/038
- **Iraupena:** 0:06:30. **Hasi:** 01:32:38. **Bukatu:** 01:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolan lanean oso gustura aritu da. Bere bikote Jon Etxabe orduan abadea zen eta kartzelako azkenengo urtea Kataluniako abade-etxean egin zuen eta ostiralero joaten zen bera bisitatzera. Ikastolako bulegoa Markeskuan zegoen.

31. Epaiketa militarrean kargu penalak kendu zizkioten

- **Erref:** EIB-720/039
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:39:08. **Bukatu:** 01:40:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Burgosko prozesuan epaitua ez izateko ihes egin eta auzi-iheslari deklaratu ziotenez, Maria Luisak kontatzen du ezin izan zuela pasaporte atera. Epaiketa militar bat egin ziotela eta hortik aurrera kargu penalak kendu zizkiotela kontatzen du.

32. Abade izandako gizon batekin ezkondua

- **Erref:** EIB-720/040
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 01:40:04. **Bukatu:** 01:44:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere pentsamoldearen aldaketei buruzko hausnarketa. Eibar oso herri liberala eta oso ondo hartua izan da, nahiz eta kristautasuna utzi zuen, ETAn lagundu, abade batekin bikote egin... Nahiz eta Eibarren ez jaio, eibartarra sentitzen da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com